

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

## 6113

*EBAZPENA, 2011ko azaroaren 25ekoa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarri Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2011ko urriaren 4an emandako Ebazpeneko (urriaren 24ko EHAA, 202. zk.) hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Edurne Aranzazu Garin Cortajarena andrea goi-kargudunaren idazkari izendatzea Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzan, 520010 kodea, 174 dotazioa.

Bigarrena.– Izendapen honek 2011ko abenduaren 1etik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bideari bukaera ematen dio. Aurka egiteko, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakiok ebazpena eman duen organoari, EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 25a.

Lehendakaritzaren idazkari nagusia,  
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.